

Langraizko espetxe berria 2011rako eraikita egongo dela iragarri du Gallizok

Espetxea martxan hasten denean, egungo itxi egingo dutela esan du Espainiako Espetxe Erakundeetako buruak

Erredakzioa Gasteiz

Langraiz Okan (Araba) egin asmo duten espetxea 2011. urteko erdialderako eraikita egongo da. Hala iragarri du Mercedes Gallizo Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendariak. Zaballako lurretan iazko abuztuan hasi zituzten kartzela eraikitze lanak. Eraikina bukatu eta espetxea martxan jartzen dutenean, egungo espetxea itxi egingo dutela ere jakinarazi du Gallizok.

Langraiz Okako egungo espetxean izan zen atzo Espetxe Erakundeetako zuzendaria. Udalerriko hautetsiekin bildu zen, kartzelaren egitasmoari buruzko xehetasunak emateko. Jakinarazi zien 720 ziegako kartzela egingo dutela, eta hori egiteko 500 langile ingururi emango dietela lana hurrengo bi urteetan. Espetxe Erakundeetako zuzendariak iragarri du itxi egingo dutela kartzela zaharra, nahiz eta ez duen argitu zer egingo duten eraikinarekin.

Ingurumen azterketak

Langraiz Okan duten espetxearen inguruan tirabirak sortu dira Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren nahiz Arabako Foru Aldundiaren artean. Espainiako Gobernuak erabaki zuen kartzela eraikitze lanak «urgentziaz» hasia, ingurumen azterketarik egin gabe; Eusko Jaurlaritzak iragarri du azterketarik egin ezean auzitegietara joko duela.

Gallizoren esanetan, ordea, kartzela eraikitze aukeratuak lekua egokia da. «Beti kontuan izan zen ideia da». Proiektuak «indarrean dagoen legediaren eskakizun guztiak» betetzen dituela dio. «Ingurumen neurriak hartu ditugu, ez bakarrik legea betetzeke, baizik eta uste osoa dugulako horretan». Espetxearen aurkako mugimenduak sortzea «tradicio» dela esan du, «beti dagoelako egoki ikusten ez duen norbait».

Eusko Jaurlaritzak «ardura guztxikoa» izatea leporatu dio Espainiako Gobernuari, ingurumen azterketak egin baino lehen egin zatz jo delako espetxea. Esther Larrañaga Ingurumen sailburuaren hitzetan, «ez dirudi Espainia-

ko Gobernuak errespetu askorik diendien legeriari eta Zuzenbideari». Izan ere, gogorarazi du Eusko Jaurlaritzak eskaera egin diola Espainiako Gobernuari ingurumen azterketa egiteko, eta, hori egiten ez badu, salaketa aurkeztuko duela auzitegietan. «Ez dirudi oso demokratikoa esateak espetxe proiektu bat inposatu egingo dela, ez bakarrik herri borondatea errespetatu gabe, baizik eta ingurumen legeria errespetatu gabe».

Eusko Alkartasunak ere espetxe proiektuaren aurka egin du. Rafa Larreinak dio ez dagoela ingurumen bermerik kartzela eraikitzeke, eta inguru hori aurretik ere nahikoa «zigortua» badagoela salatu du. Orobat, uste du «makrokartzela zaharkituaren eredu» ezarri nahi duela Espainiako Gobernuak. «Eredu hori ez da eraginkorra bergizarteratzeko eta prebentziorako». Espetxe txikien eta banakako arretaren alde egin du Eusko Alkartasunak.



Langraizko gaur egungo espetxea. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



Enplegu bila bazabiltza ...



Lanbidek erakutsiko dizu bidea

2007 - 2010
Enplegu-plana



► **lanbide Zure Plan Pertsonala lana bilatzeko**

Informazioa:
Tel./ 901 222 901 www.lanbide.net



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

EUSKO JAURLARITZA
JUSTITZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SALA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTITIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

EUROPIAko ELKARTEA
UNION EUROPEA
Kontakizunak
www.lanbide.net



► Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak arreta personalizatua eta kalitatezkoa eskaintzen dizu, lana lortzeko dituzun aukerak hobetzeko.

“Lana bilatzeko Plan Pertsonala” zuzendatzen, behar dituzun zerbitzu guztiak bilduta: Orientazioa, Prestakuntza, Lana bilatzeko teknikak, enpresetan praktikak egiteko programak, eta lan-merkatuko bitartekaritza zure profilari gehien egokitzen zaizkion lan-eskaintzak eskuratzeko aukera eta guzti.

Lanbidek bere zerbitzu profesional guztiak zure esku jartzen ditu, bere bulego eta zentro laguntzaileen bitartez.

Lanbiden enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lortzeko laguntza eman nahi dugu.

Pertsonak axola zaizkigu.